



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2008-01-19**

VI.URTEA 1.340.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**TOMAS ARMENDARIZ** KANTABRIKO TABERNAREN JABEA

## «'Kantabriko hirea baino gehiago gurea duk' esaten didate askok»

**TOLOSA** Apustuak ederki ezagutzen ditu elduaindarrak, eta bere taberna ezaguna da gure mugetatik kanpo ere

**IRITZIA** Apusturik ez balego herri kirolek jarraipena galduko luketela diote eskualdeko kirolariek 2-3



I.TERRADILLOS

## Unai Otañok helegitea aurkeztuko du

**IBARRA** Aizkolaria bi urtez ezgaitzea eta lizentzia kentzea erabaki du Gipuzkoako Federazioak 6



I.GARCIA

**ENEKO LORAN** KZ-GUNEKO DINAMIZATZAILEA

«Internet modu profesionalagoan erabiltzea nahi dugu»

**TOLOSALDEA** Eskualdeko bost herritan KZgunea Bigarren Belaunaldia proiektua koordinatzen du 7

## E Elkarrizketa

TOMAS ARMENDARIZ &gt; Kantabriko tabernaren jabea

## «'Hirea baino gehiago gurea duk Kantabriko' esaten didate askok»

**Gizartea** » Oso ezaguna da Kantabriko taberna, bai eskualdean, bai Euskal Herrian, bai eta atzerrian ere; Tomas Armendariz da jabea.

E. EZEIZA - I. TERRADILLOS

Ederki ezagutzen du Tomas Armendarizek (Elduain, 1953) apustuen mundua. Kantabriko tabernaren jabea da, apustuen tradizioa mantendu duen Euskal Herriko txoko ezagunenetakoa. Gustura kontatu dizkigu gaiaren inguruko xehetasunak, nabari da apustuena bizi egiten duela, odolean daramala.

**Nolatan da hain ezaguna Kantabriko taberna apustuen munduan?**

Kantabriko egun den bezala, garai batean baziren Tolosan beste taberna batzuk ere. Jendea biltzen zen tabernetan, eta giro polita izaten zen. Taberna horiek ixten joan dira, eta Kantabriko mantendu egin da, eta aizkolariak, segalariak eta abar hona etorri izan dira apustuak egitera. Esan izan didate «Kantabriko hirea baino gehiago gurea del». Donostian eta Zarautzen ere ibili izan dira apustu kontu horiekin, baina a gurera nahiago izan dute etorri aizkolariak, pilotariak, segalariak, harri-jasotzaileak... Agian Tolosak duen kokapenarengatik izan daiteke.

**Zure taberna, ordea, eskualdean edo Euskal Herrian ez ezik, atzerrian ere ezaguna da.**

Bai, kanpoan ere oso ezaguna da Kantabriko, hemen baino gehiago agian, eta hori askok esan izan didate. Madrilen ere esan izan didate gure tabernaz hitz egin dutela, ezaguna delako apustuen kontuan, eta hanga egunkari batzuek ere deitu izan didate apustuen inguruan galdetuz, hemengoek sarri egiten duten bezala. Canadatik ere etorri izan dira. Egunkarietako erreportaiak erakutsi nizkien, apustuen mundua ez zutelako ezagutzen.

**Zein izaten da zure papera apustuetan?**

Nik apustuak ez ditut egiten. Jendea etortzen da, eta apustuak sortu nahi ditu, eta orduan apustuzaleen dirua gordetzea izaten da nire egitekoa. Guk dirua gordetzen dugu, jendeak gugan konfidantza duela; hala irabazten dutenean, esaterako, etortzen dira eta bazkaltzen dute, tertulia egoten da... Giro hori sortzen da, eta hori gurean mantendu egin da.

**Konfidantza hori irabazi egin beharko da?**

Bai, urteetan egindako lanagatik izan da hori. Eskertzekoa da jendeak gugan duen konfidantza, izan ere erraza izango litzateke tranpa egitea, baina jendeak ikusten du ez dagoela horrelakorik.

**Zuk ez duzu apustuetatik irabazten.**

Ez, ez dut irabazten. Telebista etortzen bada, diru kontuak-eta zabaltzen dira, eta orduan esan izan didate diru pilarekin ikusi naute la-eta horrelakoak, baina ez dago horrelakorik. Esan izan didate, baita ere, batere ez irabazita nola jarraitzen duen mundu honetan, baina niretzat oso tristea izango litzateke ez jarraitzea horiekin, hainbeste urtetako ohitura batekin.

**Urte hauetan guztietan makina bat pasadizo izango dituzte?**

Asko. Esaterako, bazegoen Errenteriko gizon heldu bat. Galdetzen zidan ea zeozer bazegoen 100 euro edo jokatzeko. Orduan, telebista ikusten jartzen zen partidari begira, eta irabazi edo galdu, orduan jakiten zuen.

**Apustuak egiteko makinak jarriko omen dituzte. Zer diozu honen inguruan?**



I. TERRADILLOS

Makinak inguruan komentario asko entzun izan ditut tabernan. Batzuek diote guk duguna eta berriak ez dutena kendu nahi digutela. Nire ustez, ez da berdina izango, eta berez apustuek duten xarma hori galdu egingo da, hitz eginez beste era batera egiten baita. Lizenzia dutenek jarri ahaliko dute. Azken batean, txanpon-makinak duten funtzioaren antzekoa izango lukete. Lehengoari eutsi nahi dio jendeak. Makinak jarri nahibadituzte jarriko dituzte, baina lehengo ohiturak mantendu egingo dira.

**Euskaldunak apustuzaleak garelako diote.**

Euskaldunak bereziak gara jokoekin eta apustuekin, eta beti izan dugu apustuekiko zaletasuna, aspalditik datorren kontua da.

**Nabaritzen al da apusturik dagoenean?**

Apustu bat dagoenean ormetan zintzilik jartzen ditut kartelak horren berri emanez. Tristura sentitzen dut hutsik egoten denean. Tabernetan egiten direnak beste giro batekoak dira, herri girokoak, ez da pilotalekuetako apustuak bezala izaten.

**Duela gutxi legea ezarri zuen Eusko Jaurlaritzak apustuen inguruan.**

Legeak dio ezin dela dirurik jokatu tabernetan, apusturik ezin dela egin bertan, frontoietan ala zezenplazetan egin ahal direla soilik; baimen berezia izan behar da, eta 600 euro baino gehiagoko apustuak ez dira onartzen. Jendeak horren inguruan dio bakoitzak bere diruarekin nahi duena egin dezakeela, eta lege hori jartzea inposaketa bat dela. Garai batean bezala mantendu dira gurean apustuak, eta hori galtzea tristea dela iruditzen zait. Hori horrela bada, orduan porrak ere ez litzuke utzi behar egiten tabernetan.

**Apustuak asmatzea zaila da.**

Bai, eta pilotan adibidez, gaur egun zailagoa da asmatzea lehen baino. Retegik-eta jokatzeko zutenean desberdintasun handiagoa zegoen. Olaizola edo Irujo joan edo Mindegia eta Larretxea, nahiko berdintsuak dira, beraz, ez da hain nabarmena nork irabaziko duen.

**Apustuena galtzen ari dela esango zenuke?**

Ez nuke hori esango. Gazteak ere asko joaten dira frontoira, eta apustuetan ere aritzen dira.

**Zuk ere dirua jartzeko ohiturarik ba al duzu apustuetan?**

Ez naiz jokalaririk porrokatu horietarako. Final batean jende asko bada, orduan, bai, gustatzen zait, baina ez daukat ohitura handirik.

**Jendeak diru asko uzten du apustuetan.**

Asko koadrilatan etortzen dira, euren artean diru kopuru bat pilatuta, eta orduan bai, apustuan jartzen duten kopurua handia izaten da. Normalean apustuan jartzen dena 100 euroren bueltakoa izaten da.

**Herri kirolak-eta apusturik gabe zer izango lirateke?**

Ez. Apustuak behar dituzte herri kirolek mantendu ahal izateko. Zaldi karreretan, boxeoan apustuak izaten diren bezala, herri kirolek ere beharrezkoa dute.

**Orain Larretxeak bota du desafia. Norbait etorriko al da?**

Gaur du hitzordua. Nik uste dut izango dela norbait, eta ikusmira sortuko duela.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN  
**PROBIGURRAK**

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Zelai taberna**  
(Berastegi)  
**alokatzen da**  
**606 74 24 08**

» INKESTA

1. Zer izango lirategi zure ustez herri kirolak, apusturik gabe? 2. Apusturik ez egiteak kalte egingo al lieke hauei?



«Apustuak kentzea herri kirolei hankak moztea da»

**Anjel Arrospide**

AIZKOLARIA

1. Apustuak kentzea herri kirolei hankak moztea izango litzateke. Asko galduko lukete ikuskizunek. Ni ez naiz oso joku zalea, edota apustu asko egiten dituenena, baina honek bizia ematen die ikuskizunei.

2. Apustuaren saltsa ez balego, erakustaldiak ez lukete horrelako xarmarik izango.



«Debekatuz gero frontoiko giroa bukatuko litzateke»

**Imanol Altuna**

ERREMONTISTA

1. Apustu mundua debekatuz gero frontoiko giroa bukatu egingo litzateke. Astero astero pilotari berdinar jokatzen ikustean, apusturik edo txispa hori ez balego, grazia kenduko lioke.

2. Artekariak gabeko partidak grazigabeak dira. Pentsamoldea aldatu beharko genuke partidak apusturik egin gabe ikustera joateko.



«Apustu gabe, zenbait kirol ezingo lirategi mantendu»

**Anizeto Lazkano**

ASEGARCEKO PRESTATZAILEA

1. Momentu honetan enpresen zati handi bat dira apustuak. Enpresak diru kopuru handiak eskuratzeko dituzte hauei esker. Gainera, saltsa ematen dio ikuskizunari eta dirua tarteko denean, jendearn motibazioa handiagoa da.

2. Esaterako, erremontea bezalako kirolak ezingo lirategi mantendu. Momentu honetan pilota partidak ezingo lirategi ulertu apusturik gabe.



«Ni zerbaiz izan banaiz, apustuengatik da»

**Juan Manuel Erasun**

SEGALARIA

1. Oraingo egoeran herri kirolak mantentzea ezinezkoa izango litzateke apusturik gabe. Goitik beharok aldaketa eman beharko litzateke sistemari. Orain bezala urtean txapelketa bakarra antolatuta ezin da. Ni zerbaiz izan banaiz apustuengatik da.

2. Apustuak giltzen bada eta txapelketa sistemaz gain, beste zerbaiz ez bada egiten, galdu egingo lirategi herri kirolak.



«Apusturik gabe bizi daitezke herri kirolak»

**Iñaki Perurena**

HARRI-JASOTZAILEA

1. Nik 35 urte daramatzat harria jasotzen, eta orduan ez zegoen herri kirolik, garai hartan apustuak ziren. Bost urte beranduago hasi ziren herri kirol bezala ezagutzen. Eta hor ere, tokia dago apustuaren zati da.

2. Nik beti esaten dut, harria jasotz eta harria jasotzeko apustua egin. Ez modu berean, baina apusturik gabe bizi daitezke herri kirolak.



«Apustuak asko ematen die herri kirolei»

**Jexux Mari Ormaetxea 'Urki'**

SEGALARIA

1. Herri kirolak gauza gutxi izango lirategi apusturik egongo ez balitz. Gaur egun apustu gutxi egiten bada ere, lehen, kirol guztietan egoten ziren apustuak tarteko. Kirol mundu hau oso hila egongo litzateke joku hori gabe, apustuak asko ematen baitio honi.

2. Herri kirolak gauza polita dira, baina apustuak bizitasuna ematen die, eta hauek gabe, ez lukete horrenbeste erakarriko.

**Etxeko korrikalari txikiak lasterka hasteko garaia da**

**Kirola** » Bihar izango da Ero Etxe elkartearen XXI. krosa; aurtengoa ere 700 gaztetxo inguruk hartuko dute parte.

**E. EZEIZA**

Urte hasierako tradizio bilakatu da eskualdeko gaztetxoentzat Ero Etxe elkarteak antolatutako krosa. Aurtengoa 21. edizioa jokatuko da. Hitzordua bihar goizean izango dute korrikalari txikiak. 9 urte-14 bitarterekoek hartu ahal dezakete kros honetan. Hala, sei taldetan banatu dituzte korrikalariak eta 11:30ean aterako dira lehendabizikoak. Azkenak berriz 12:35 aldera hasiko dira korrika.

**Aurtengo lasterketa**

Lasterkariak San Frantzisko elizaren aurrealderantz aterako dira, eta hor bertan amaizuko dute lasterketa. Dagoeneko parte-hartu behar duten gehienek eman dute ize-na beraien ikastetxeetan, baina igandean bertan ere izango da horretarako aukera.

Joan den urtean 700 gaztetxok hartu zuten parte gutxi gora beheira krosean. Ero Etxeko en utsetan, aurten ere parte-hartzaile kopurua antzekoa izango da, «nahiz eta, ziurrenik, San Sebastian gainurteak eragina izan dezakeen», jendea Donostiara joango baita familiarekin egun hau ospatzera. Proba amaiztu ostean, sari banaketari ekingo diote. Lehendabiziko-en artean garaikurrak banatuko dituzte. Bestalde, korrikalari gutxietari opariak emango dizkiete.

**XXI urte kirola bultzatzu**

Ero Etxe elkarteak haurrak beti egon dira beraien ekintzen bihotzean. «Naturala da. Ero Etxe elkarte, geure familiaratu eratu genituen gazte koadrila batzuen bultzadak sortu zuten» diote.

Haurren garapen pertsonala bultzatzeko eta zaintzeko ideiak behin eta berriz bururatu zitzaizkien. Hala, ideietako bat indarrez emanitu zen. Ero Etxeko haur krosasortu zen.



700 gaztetxo inguruk hartuko dute parte biharok lasterketan. NEREA LUZARTZA

» **ERO ETXE KROSA**

**Infantilak**

■ **11:30.** 94/95ean jaiotako mutilak. Bi itzuli egin beharko dituzte, denera, 2.800 metro.

■ **11:45.** 94/95ean jaiotako neskek. Itzuli motz bat eta beste luze bat egin beharko dituzte, denera, 2.000 metro.

**Alebinak**

■ **12:00.** 96/97an jaiotako mutilak. Itzuli motz bat eta beste luze bat egin beharko dituzte, denera, 2.000 metro.

■ **12:15.** 96/97an jaiotako mutilak. Itzuli luze bat egin beharko dute, denera, 1.400 metro.

**Benjaminak**

■ **12:20.** 98/99an jaiotako mutilak. Bi itzuli motz egin beharko dituzte, denera, 1.200 metro.

■ **12:35.** 98/99an jaiotako mutilak. Itzuli luze bat egin beharko dute, denera, 600 metro.

Etenik gabe 21 edizio izan ondoren, haurrentzat, indar gehien duen kirol festa errotuetakoa da Tolosan. Urtarrileko hirugarren igandero, Tolosa, atleta txikiek bertan da. Denak, festa giro ederren, hiriko alde zaharreko herri zirkuitoa marka on batekin amaizten ahalegintzen dira.

Elkarteakoen esanetan, «urtero, 600 ume korrika ikusteak poztasun izugarria sortzen digu eta geure festa kutuna berritzen laguntzen digu. Poztasuna are handiagoa da jakitean gure Krosaren podiuma izan dela olinpiko eta goi

mailako atletak zapaldu duten lehen». Haur krosak dituen urte guztietan festa antolatzeko lagun ikaragarriak izan ditu alboan. Denak, industriarik eta Tolosako Udala bezalako erakundeek urtero laguntzen dietelarik.

**Trafiko neurriak**

Krosa dela eta, 11:00etatik 13:00etara, erdi aldean aldaketak izango dira motordun ibilgailuentzat. Hona hemen aldaketa hauek: Roncalesa autobusa, Rondilla kalean gelditu beharreen, Santa Lucia garajearen ondoan eta Usabalgo (Iruñea etorbidea) ohiko gurealdetan geldituko da. Donostia-Tolosa autobusak eta Tolosaldeabusek, erdi aldera sartzeko, Usabal-Suhiltzaileen parkea - Berazubi bidea egingo dute, eta geldialdiak egingo dituzte zezen-plazan, Nafarroa etorbidean eta Jon Andoni Iratzusta pasealekuan.

Bestalde, krosak 2 ordu irauten du gutxi gorabehera, eta tarte horretan Rondillara sartzetik ez da izango Gorritin itxita egongo delako, hainbat banatzaile eta zona horretan garajea dutenentzat izan ezik. Era berean, tarteka itxi egingo dute bidea Santa Klarako biribilgunean, Zumalakarregi kaleantzat izan ezik.

Ibarra-Leitza aldera eta erdialdeko jateko, honako hau gomendatzen dute: lehen kasuan, autobidean erdialdea dioen irteera erabiltzea. Eta bigarrenetan, hegotea irteeran aterata, Araba etorbideko lurrazpiko pasabide berrituzteza.

**Hilberria**

Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurren-ekertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko.hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**PEPITA MENDIZABAL AIESTARAN**

(IGNACIO GALARRAGAREN ALARGUNA)

Atzo hil zen, 91 urte zituela. Bere seme-alabak, Fermin eta Tere Larrarte, Juan Manuel eta Eliane Etxeberria, Izaskun eta Pako Iparragire, Bittor eta Mariakun Irastorza, Pedro Mari eta Mila Altuna, Angel Mari (Pototo, eraila), Juan Ignacio eta Rosa Mari Irastorza; koinata, Joakina Esnaola (Bautista Mendizabalena alarguna); ilobak, lehenagutxoak eta gainerako ahizpaeak.



ZALDIBA  
2008ko  
urtarrilaren 19a

GAUR, arratsaldeko 19:00etan, Zaldibiko parroki elizan, izango da hileta elizkizuna. Ondoren, gorpua errautera eramango da. Oharra: hilberria Oiarbide tanatorioan Sempere, Beasainen.

## Laburrak

### Tolosaldeak IKTren zozketaren irabazleak

**TOLOSA** » Tolosaldea IKTk Eguberrietan antolatutako zozketen zentzuzko irabazleak eman ditu jakitera. 3.329 zentzuzko Alde Zaharra erosketa balea eta Julianen bilagunentzako afaria irabazi ditu. 2.250 zentzuzko asteburua Europako Gailurretara. 3.516 zentzuzko Igarondo erosketa balea eta Nicolasen afaria.

### Inauterietako pregoiaren kontzerturako entseguak

**TOLOSA** » Udal Musika Bandak Inauterietako pregoiaren kontzertua emango du, hilaren 27an. Bandan aritutako musikariek deialdia egin diete kontzertu honetan parte har dezaten. Hilaren 22an eta 24an egingo dituzten entseguak 20:30ean bandaren lokalean.

## Blogteka

### Kalderero, Danborrada eta Inauteri kontzertua

Bihar Tolosako Musika Bandak urteroko kontzertua emango du Iurreamendi egoitzan, bertakoei eskainia. Ekitaldia 11:30ean hasiko da Udal Txistulari Bandak euskal doinu batzuk eskainiz, tartean Inauterietakoak. Ondoren Musika Bandak Kaldereroetako, Donostiako Danborradako eta Tolosako Inauterietako doinu ezagunak eskainiko ditu entzuleen gozamenerako. Senideak eta herritar guztiak ere gonbidatuta daude jai giroko kontzertu honetara.

**Tolosako Musika Banda**  
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/banda>

# PPren zinegotziak «alkatearen geldotasuna» salatu du

**Zizurkil** » Marian Lazkano alkatearen iritziz, «PP alderdiko zinegotziaren gezurrak alarma sortu dute herritarren artean».

HARRIET BELLOSO

Raul Vazquez Zizurkilgo PPren zinegotziak, herriko eraikin batean agertu den «pankarta mehatxagariaren aurrean» Maria Angeles Lazkano alkateak izan duen «jarrerara pasiboa» salatu du. Bere ustez «ETAren sinboloak udaletxean dauden elkarrean beharrak baino gehiago errespetatzen ditu».

Pankarta batean Udaleko zena bait kide «gogor erasotzen» direla dio Vazquezek. «Pankarta hori ahal den azkarren kendu behar da, eta horrelako txantaje terroristen aurrean herritarren elkartasuna guztiz beharrezkoa da», azaldu du PPren zinegotziak.

Pasa den abenduaren 26ean egin zuen bezala, «pankarta jarri den lokal gazteek erabiltzeko toki publikoa» dela ohartarazi du. «Hasi-eran planteatu ziren ekintzak egin beharko liriteke lokal horretan, ez ETAren marketing-a».

Vazquez oso kritikoa izan da alkatearekin. «Plenoan udaletxea Espainiako bandera altxatzeko gai ez dela esan zuen, baina bitartean ETA inguruko jarrera hauek baimentzen ditu».

Zizurkilgo alkateak ez du «inongo tirabiretan» sartu nahi PP taldekoekin. «Raul Vazquez errespetu gutxi duen pertsona dela erakutsi du denboraldi honetan. Bere garaian gai honi buruz gure iritzia azaldu genuen, eta orain gure lana egiten jarraitu nahi dugu», azaldu du Lazkanok. «PP alderdikoak



Zinegotziak berak pankartari atera dion argazkia. HITZA

guk ez dugun ikuspuntu batetik iri- dirarazoz hau lantzen eta azkenaldian esan dituzten gezurrak alarmasortu dute herritarren artean».

### Ugare auzo inguruan bilera

PPren zinegotzia Ugare auzoko obren inguruan ere bere kexa azaldu du. Bada, Zizurkilgo Udalak hilaren 29an bilera bat egingo dutela jakinarazi du, Ugare auzoko bizilagunekin, eta bertan gune horretako berrurbanizazio-lanak egiten ari diren enpresa eta erakundee- ta ordezkariek jarduketara honetako eta aurrera begira egingo diren beste lan batzuen xehetasunak emango dituzte, hainbat zalantza eta galderei erantzuteaz gain.

Bilera Kultur Etxean izango da 19:30ean, eta han izango dira Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzako arduradunak, Mariezcurrena enpresako ordezkariek eta Zizurkilgo Udaleko teknikari eta politikariak, bakoitzari dagokion

arloari buruzko argibideak eskainitzeko. Hala, Eusko Jaurlaritzak eta Mariezcurrena enpresak Oria ibaiaren bideraketa zein fasetan aurkitzen den, etalanan amaitzeko epeak zein diren azalduko dituzte, atal horien arduradunak diren aldetik.

Udalak bere aldetik, Ugare (Ubare) auzoaren biziberritze- planaren berri emango du. Plana, ordea, ibaiaren arroan egin behar- reko lanak esleitu eta hauek egin ondoren jarriko da martxan. Bileran parte hartuko duten guzti- ek argituko dituzte azken hilabete- n hauetan gune horretako auzota- rren artean sor zitezkeen zalant- zak.

Aldi berean, Zizurkilgo Udalak argi utzi nahi du «herrian buru- tzen dituen jarduketak guztietan gardentasunaren alde egin duela apustu, hirigintzako edozein jar- duketetan segurtasuna bermatze- ko konpromisoa berrestez gain».

## Ikurrinaren defentsan lan egingo duen lan taldea osatu dute

**Leitza** » Nafarroan «ikurrinak jaso dituen erasoen aurrean» elkartasuna eskatu dute Bai Euskal Herriari elkartekoek.

ERREDAKZIOA

Pasa den hilaren 29an ikurrinaren inguruko herri batzarra ospatu zen Leitza. Bertan talde guztieta- ko 25 lagun bildu ziren ikurrinaren inguruan eztabaidatzeko.

Bai Euskal Herriari elkarteko- en esanetan, «ikurrina euskal herrita- rron ikur delarik, berriz ere dago- kion lekua berreskura dezan lan egiteko prest gauden lagun taldea elkartu gara eta eskuarte- an dugun egitasmoa han bildutakoekin par- tekatu genuen. Gure iritziz, helbu- rra lortuko dugu, eta horretarako euskal herritar garenon guztion indar metaketa bat behar dugu. Ikurrina guztiona da, eta guztiok batera egin behar dugu aurrera».

### Ikurren defentsa nagusi

Leitza eraturtako talde berri ho- nek «Euskal Herriari dagozkion ikur, sinbolo eta ezaugarrien de- fentsan» agertu da. Bai Euskal He- rriari ekimenarekin bat egitea planteatu zen bilkuran, eta ongi iri- tzitako auzoaren zenez, aurrerantzean halaxe aurkeztuko dela berri eman dute.

Helburu garrantzitsu hau bete- tzeko «herritarren parte-hartzea guztiz beharrezkoa» da. Duela bi urte Leitza ikurrinaren inguruan emandako gertakariak eta gero, aktibazio beharra ikusi da. Hori izango da Bai Euskal Herriari koen lehen eginkizuna.

## Zurea da hitza

# Ostadarren irudi ederra Gaztelutik ikusita

**Gaztelu** » Tolosaldeak irudi ederrak uzten ditu askotan; adibide ezin hobea ostadarren argazki hau, Gaztelutik aterata.

MAITE IBARGUREN

Gaztelutik ateratako argazkia sar- tu nahi dut zuen atal honetan. Oso deigarria iruditu zitzaidan paisaia eta argazkia ateratzea erabaki nuen. Altxo ikus daiteke bertatik, eta baita ostadarra ere.



Ostadarren irudia, MAITE IBARGUREN

## Zurea da hitza

# Egin dezatela zerbait Soldadu kaleko arriskuaren aurrean

**Tolosa** » Herenegun hil zen emakumearenak ez nau harritzen, niri ere antzeko zerbait pasa zait aste honetan bertan.

HERRITAR BAT

Emakume bat hil da kamioi batek harrapatuta Tolosako Soldadu ka- lean, San Frantzisko elizaren ondoan, kamioi batek harrapatuta,

eta egia esan ez da harritzekoa, oso arrisksua baitago zonalde hori.

Niri ere antzeko zerbait gertatu zitzaidan kale honetan, hau da, ez nuen obretatik zetorren kamioi bat ikusi zerbait egiten igarotzen ari nintzela. Aste honetan bertan ger- tatu zait hau.

Nire kexa azaldu nahiko nuke arazo honen aurrean. Mesedez, dagoeneko berandu bada ere, bai- na egin dezatela zerbait Soldadu kaleko arriskuarekin.

# Imanol Pildain: «Horma apirila aldean bukatzea espero dugu»

**Baliarrain** » Ibiur urtegiko presa bukatzen ari dira, baina obrako teknikoak esan bezala, «barruko hainbat gauza falta dira».

Guztira 165.000 metro kubiko hormigoi daude sartuta dagoeneko, teknikoak argitu bezala. Gora aldera, berriz, paretak metro eta erdi inguru egingo du, errepidearen altuera hartuz.

Pildainek bi-hiru hilabeteko lana falta dela kalkulatu du, api-

## ERREDAKZIOA

Dagoeneko Baliarraingo Ibiur urtegiko presaren obren %80 eginda dago. Jorge Marquinez Ur konfederazioko lehendakariak adierazi bezala, «obrak aurreikusitako erritmoan doaz». 31,7 milioi pezetako aurrekontua dute obra hau egiteko.

Espainiako Ingurumeneko Ministeritzako idatzi baten arabera, Ibiurko hormaren hormigoi kopuru handiena jarrita dago. Imanol Pildain obrako teknikariak, bere aldetik, horma apirila aldera amaitu dutela adierazi du: «Pareta bera bukatu egingo dugu ordurako, baina barruan egin beharreko gauza asko oraindik faltako dira, eta datoen hilabetetean eraman-go dira aurrera», hau da; horma egina dagoela ikusiko da baina «tripak, nolabait esatearren», ez dauka bukatuta.

**Horma egina dagoela ikusiko da «baina tripak, nolabait esatearren», ez dauka bukatuta**

mila arte, hain zuzen. «Goiko txapela falta zaio, baina ez da altuera bakarrik ematea, goian berriz zabaldu egin behar baita. Horretarako denbora behar da, egitura bera egonkortzeko, besteak beste». Dena dela, argi ikusi dena hau da: «Langileak jo eta su aritu dira eta ari dira, herritarrek ere esan dezakete, gauzez ere aritu baitira. Esfortzua ari dira egiten eta ordu pila sartzen ere bai».

**«Lan gehienak aurreratuta»**

Hormako obrez gain, Marquinezek adierazi zuen, «oso aurreratu-ta daudela bestelako gauzak». Ho-



Ibiurko presaren itxura joan den apirilaren erdialdean. Gaur egungoa eskuineko irudian ikusten dena da. N. URBIZU

nen baitan, gainezkabideak, Oria ibaiaren desbideraketa, urtegia betetzeko hodiak eta azpiegiturak edota isurbideak hartu ditu kon-tuan Marquinezek. Pildain teknikoak ere hala baieztatu du: «Urtegia betetzen hasteko garaian beste hainbat kontu egin beharko lirarteke, orain egin ezin direnak».

Azpiegitura behin bukatuta, urtegia betetzen hasiko lirarteke. Honetarako, inguruko hainbat erre-  
kaxoren ura baliatuko dute.

Ibiurko presako ura Ikaztegieta-  
ren Ministerioak onartu du bere  
gainean (Interes Orokorreko Obra  
da), Oria ibaiaren inguruko he-  
rriak urez hobe hornitzeko. Ez da

presa bakarrik izan, baita ur edan-  
garriaren trataerarako gune bat,  
biltegiak eta herrietara iristen den  
sarea ere.

Ibiurko presako ura Ikaztegieta-  
ren Ministerioak onartu du bere  
gainean (Interes Orokorreko Obra  
da), Oria ibaiaren inguruko he-  
rriak urez hobe hornitzeko. Ez da

## Ikastaro berriak otsailean

**Alegia** » Gozogintzaren, pilates, GPSarekin orientazioa eta dantza latinoen ikastaroak jarriko dituzte abian.

## ERREDAKZIOA

Alegian otsailean bost ikastaro jarriko dituzte martxan. Gozogintza, pilates, orientazioa eta dantza latinoak landuko dituzte, Kutxaren laguntzaz. Ikastaro hauetan izena emateko bi aukera daude: [www.begira.net](http://www.begira.net) webgunean edo Alegiko Kultur Etxean, asteazkenean arte.

Gozogintza ikastaroa Cebancdeak eta Alegiko Udalak antolatu dute eta Gure Etxea elkartearen izango dira klaseak, otsailaren 6tik apirilaren 30era arte. Asteazkenean izango da 18:00etatik 20:30era. Ordaindu beharrekoa, berriz, 30 euro. Izena datorren ostiralera arte eman daiteke.

Pilates I. maila Kultur Etxean egingo dute otsailaren 7tik abendura arte, ostegunetan 18:00etatik



Pastelak egiten ikasiko dute gozogintza ikastaroan. OLAIA ESKITXABEL

19:30era. Ikastaro honetan ariketa zehatzak egingo dituzte gorputz jarrera egokiak, indarra eta malgutasuna lantzeko eta bizi kalitatea hobetzeko. Pilates II. maila egiteko aukera ere zabaldu dute. Otsailaren 12tik abendura arte izango da, 18:00etatik 19:30era asteartero.

GPSa eta orientazioarekin lotutako ikastaroa egiteko aukera izango da apirilaren 1, 2, 3 eta 5ean,

19:00etatik 21:00etara. Azken egunean ibilaldi bat egingo dute, oraindik zehaztu ez duten lekura. Mendian GPSa erabiltzen ikasiko dute, mendiko mapak interpretatzen ikasiko dute, galtzen garen kasuetan zer egin...

Laruntz dantzak izango dira otsailaren 9an hasita, abendura arte, larunbatero, 11:00etatik 12:30era.

## Laburrak

### Danborradetako entseguak datorren astean

**TOLOSA** » Aurtengo Tolosako Inauterietan danborradan atera behar direnentzat entseguak daude datozen egunetan. Lehenengoa etzi izango da, astelehena 21: hurrengoak, berriz, hilaren 22an, 23an eta 24ean. Denak 20:00etan izango dira Tolosako Kultur Etxean. Azkenekoa, aldiz, hilaren 29an izango da Pablo Gorosabel kaleko lokalean, musika eskolan, hain zuzen ere.

### Hirigintza eta obretako batzordearen bilera etzi

**AMEZKETA** » Amezketako hirigintza eta obretako batzordeak etzi bilera egingo du balioanitzeko gelan 20:30ean. Gaiak, besteen artean, honako hauek izango dira: herriko saneamendua, Kultur Etxea, herriko plazako frontoiaren egokitzea, paper fabrikako porteri ondoan espaloia zabaltzea eta Agenda 21eko dagozkion ekintzak batzordeari pasatzea. Asteartean, aldiz, kultur batzordekoak bilduko dira.

## Buztina Taberna



- Eguneko menua kafea barne, 9'50 €
- Otartekoak
- Plater Konbinatuak

San Juan, 6 • 20270 ANOETA  
Tel.: 943 65 14 92

**Laburrak****600 euroko baino gutxiago irabazten dutenentzat**

**IBARRA** ● Udalak jakinarazi duenez, familia unitate bakoitzeko 2008rako indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata, 600Euro baino gutxiagoko diru-sarrerak egiaztatzen dituzten herritarrek, zabor bilketagatiko tasak, uraren kontsumoagatiko eta es-tolderia erabiltzeagatiko tasetatik kanpo geratuko dira. Eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira.

**Udaletik familia ugariko titularrentzat deialdia**

**IBARRA** ● Familia ugariko titular izan eta hori justifika dezaketen herritarrei ondasun higiezinaren gaineko zergaren %50eko hobaria edo bonifikazioa egingo zaiela azaldu du Ibarra Udalak. Eskariak egiteko data otsailaren 28an amaituko da eta Ibarra Udalaren Gizarte Ongizate sailean aurkeztu behar dira, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

**Ijurko eta Aramendiren ongetorriak bilera**

**IBARRA** ● Eider Ijurko eta Ekaitza Aramendi euskal preso ibartarrak martxoan geratuko dira aske. Ongietorria egiteko asmoa azaldu dute herriko hainbat taldek eta Ibarra Herri Ekimenen elkarlanean antolatuko lehen bilera egingo du urtarrilaren 22an, asteartean, 19:00etan Ibarra Kultur Etxean. Herritarrei bertan parte hartzeko deialdia ere luzatu dute.

**Gaur Galarretan Zeberio II.a txapel berri baten bila**

**ELDUAIN** ● Patxi Zeberio txapelketa berri bat jokatu du gaur Galarretan 16:00etan. Frontoi luzeko edo Casino Kursaleko txapeldu-na, Zeberio II.a, frontoi motzeko edo Martiko Txapelketako irabaz-leren aurka lehiatuko da, Lizasoren aurka. Bi txapelunen arteko irabazleak titulu berri bat izango du eta txapelketa berri honen lehen irabazlea izateko ohorea ere.

**Inauteri Eguneko afariko txartelak salgai**

**BERASTEGI** ● Aldin Kultur Elkarteak Inauteri Eguna antolatu du urtarrilaren 26rako. Egundorretako afariko txartelak salgai egongo direla jakinarazi dute. Izena emateko aukera, hilaren 22an zabalduko dute eta txartelak 20 euro inguru balio-ko dutela jakinarazi dute. Parte hartu nahi duenak afarian, Zelai Taberna eta Urepele elkartearen erosi ahal izango ditu.

## Unai Otañok helegitea aurkeztuko du zigorraren aurka

**Ibarra** » Aizkolaria bi urtez ezgaitzea eta lizentzia kentzea erabaki du Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko epaileak.

**ASIER IMAZ**

Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko Diziplina Batzordeko Epaile bakarraren ebazpenaren aurka Unai Otañok helegitea jarriko duela adierazi du, «hor agertzen den ezer hartu ez dudalako». Urrats hori emateko Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak bost eguneko epea ezarri dio Ibarra aizkolaritari.

**Epailearen erabakia**

Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak, Diziplina Batzordeko Epaile bakarraren erabakia kalera-tu du Unai Otañoren auziaren inguruan.

Federazioak, azaroaren 19an «doping auzia arau-hauste oso larritzat» jo zuen. Orain Diziplina Batzordeko Epaile bakarrak, «bi urtez ezgaitzea eta federazioaren lizentzia geldiaraztea» erabaki du. Horretaz gain, 2007ko irailean Iean jokatuako Gipuzkoako Lehen Mailako Aizkora Txapelketaren ostean jaso zituen sari eta estimazio guztiak itzultzen eskatu



Unai Otaño, Ibarra aizkolaria. INIGO ASENSIO

dio. Ebazpen honen aurkako helegitea jarriko duela azaldu du Unai Otaño, bere errugabetasuna defendatzeko.

**Gertaeren kontakizuna**

Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak gertaeren kontakizuna egin du, «komunikabide batzuetan azalduko informazio okerra eta Unai Otaño gindako adierazpe-

nak» argitu nahian. Federazioaren esanetan, «2007ko irailean Iean, Unai Otaño eta Iñaki Azurmendiri doping-aren aurkako kontrola egin zitzaizkien. Bartzelonako IMIM laborategiak metilfenidato substantzia eta honen metabolitoa den azido ritaniliko aurkitu zituen». Federazioaren esanetan, urriaren 8an kirolariari analisisien emaitzak jakinarazi zitzaizkion, burutu zitzaizkien akzio legalen berri ematearekin batera. «Unai Otaño kontratanalizia egingea eskatu zuen eta urriaren 24ean kontraanalisiak aurrekoaren emaitza baieztatuz».

Azaroaren 19an Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko Diziplina Batzordeak, Otañoren aurkako espediente zigortzailea irekitzea erabaki zuen, lizentzia geldiaraztearekin batera.

2008ko urtarrilaren 8an berriz, Diziplina Batzordeko Epaile bakarrak zigorra ezarri dio Unai Otañori. 2007ko azaroaren 19tik aurrera hasiko dira zigorraren bi urteak kontaktzen. Honen arabera bez, Otaño 2009ko azaroaren 19a baino lehen ez luke lizentziarik berreskuratzeko.



Leaburu San Sebastian ermitaren aurrean dantzariak iaz. NEREA URBIU

## Leaburu-Txaraman eta Orendainen San Sebastian Eguna bihar

**Jaiak** » Bi herrietako San Sebastian ermitaren inguruan egingo dira ospakizunak, txistulari eta dantzaz alaiturik.

**A. IMAZ**

Urteroko ohiturari jarraituz, bihar San Sebastian Eguna ospatuko dute Leaburu-Txaraman eta Orendainen. Bi herrietako elizen lekua San Sebastian ermitek hartuko dute igande batez, hauek izango baitira bi jaien egitarauaren ardatzak.

Leaburu-Txaramako alkateak, Mari Cruz Agirrek, gonbite zabala egin nahi izan du biharko, «herri-tar guztiak gonbidatuta zaudete,

antolatu den jai egun horretan parte hartzeko».

**Leaburu-Txarama**

Goizean San Sebastian ermitaren inguruan bilduko dira ospakizunari hasiera emateko. Meza ondoren herriko dantzariak ohi bezala dantza saioa eskainiko dute. Ondoren Zazpi Bide Elkartearen hamaiketako egingo dute. Arratsaldean haurren txanda izango da. Jai giroan jolasak ospatuko dituzte eta ondoren txokolata banatuko dute.

**Orendain**

Txistulariekin emango dioten jai egunari hasiera. Herriko San Sebastian ermitara bidea egingo dute eta meza ondoren hamaiketako eta bazkaria izango dute.

**» SAN SEBASTIAN EGITARAUAUAK****Leaburu-Txarama, bihar**

- **11:00.** Meza San Sebastian ermitan.
- **Ondoren.** Herriko dantzarien saioa.
- **12:30.** Hamaiketako Zazpi Bide Elkartearen.
- **16:00.** Haurrentzako jokoak izango dira.
- **Ondoren.** Txokolatada.

**Orendain, bihar**

- **11:00.** Txistularien kalejira egingo da San Sebastian ermitaraino.
- **11:15.** Meza ospatuko da ermitan.
- **Ondoren.** Hamaiketako udaletxean.
- **14:00.** Bazkaria egingo dute Eltxo Elkartearen.

## Iragarki laburrak

**LANA**

- **Zaintzailea.** Tolosan emakumea behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 626 86 89 14.
- **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. Deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira.

**SALGAI**

- **Etxebizitza.** Berrobin etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, hiru logela, komunak, ganbara eta garajearekin. Bista ederrak. 205.000 eurotan. 699 41 36 25.

**E Elkarrizketa**

**ENEKO LORAN** » KZguneko dinamizatzailea

**Internet** »

Eskualdeko bost herritan martxan jarri den KZgunea Bigarren Belaunaldia proiektuaren arduraduna da Eneko Loran

**IMANOL GARCIA**

Eskualdeko bost herritan, Adunan, Alegian, Anoetan, Iruran eta Larraulen, KZgunea Bigarren Belaunaldia proiektu pilotua jarri dute martxan. Proiektu horren arduraduna da Eneko Loran (Hernani, 1985).

**Zein da KZgunea Bigarren belaunaldia proiektuaren helburua?**

Eudelek, KZguneak eta IZFEk finantzatzeko duten proiektua da. Helburua da KZgunearen lehengo belaunaldiaren ondoren, herritarrek Internet modu profesionalago batean erabiltzea bultzatzea. Web orriak egiten laguntzea, ikastaro aurreratukoak egitea, Izenpe txartelaren erabilpena handitzea

**Bost herritan ari zarete proiektuarekin. Bakoitzean zer egunetan egoten zara?**

Astelehenetan Alegian, asteartean Larraulen, asteazkenetan Adunan, ostegunetan Iruran eta ostiralean Anoetan egoten naiz. 16:00etatik 20:00etara herritarrei zuzendutako zerbitzua izaten da. Herri bakoitzeko KZguneak bere ordutegi normala mantentzen du. **Herritarrei zuzendutakoak gain, Udalei ere zerbitzua ematen zaio. Zer zerbitzu da hori?**

Udaletxeetan goizetan egoten naiz, Udaleko web orria bultzatzen, kasu batuetan sortuz. Elkarlanean ariko naiz Udalarekin hori aurrera ateratzeko. Horixe da hain zuzen, proiektu pilotu berezia.

**Zer informazio sartu nahi izaten da udalen web orrietan?**

Herriari buruzko informazioa, al-



L. GARCIA

# «Interneten erabilera modu profesionalagoan egitea bultzatu nahi da»

bisteak eta gero tramite telematikoak egitea bultzatu nahi da. Errol da agiriak, zergak internet bidez ordaintzea, baimenak eskatzea... Azken finean udaletxera joan beharrean etxetik egitea herritarren txartelaren bidez eta Udalaren webgurutik.

**Herritarrei begira, zer ikastaro izango dira?**

Ikastaroak egiteko aukera dago beti. Interneteko ikastaro oinarrikoak, firma elektronikoaren erabilpenari buruzkoak... egiteko aukera irekita dago. Proiektu honekin jendea animatu nahi dugu ikastaro horiek egiten ditzen.

**Zer adinetako jendea espero duzue joango dela?**

Denetatik espero dugu. Bai gazteak, web orriak egiteko, bai adinekoak, Internet erabiltzen ikasteko. **Web orriak egiteko laguntza eskainiko duzu.**

Bai, elkartei zuzendutako laguntza izango da hori. Elkarrekin etor daitezke KZgunera, informazioa eskatu eta baiezkoa ematen bazaio, laguntzen zaie web orri sinple bat egiten, informazioa, argazkiak, albisteak sartzeko eta hori mantentzeko.

**Halere, egun edozein elkarte izaten du web orri bat martxan.**

Herri txikietan normalean ez dute izaten. Ez dute nork erakutsi hori egiteko. Proiektu honekin doako modu bat izango lukete hori egiteko eta KZguneak berak emango lioke lekua web orria bertan izateko.

**Erraza da web orri bat egitea?**

Erraza da eta nire laguntza izango lukete bai sortzeko bai mantentzeko.

**Oinarriko informatika ezagutzak gero eta jende gehiagok izango ditu.**

Bai, baina adineko zenbait pertsonari oraindik falta zaie ezagutzak hori izatea.

## Autoaren zozketa antolatzeko bilera Irurako Ikastolan

**ERREDAKZIOA**

Kilometroak 2008ko jaia Iruran izango da urriaren 5ean. Egun handia urriko izanik ere, urte osoan zehar hainbat ekitaldi antolatzen ari dira Irurako Ikastolatik. Hori horrela izanik, autoaren zozketaren txanda dute oraingoan eta ekonomi batzordeak honen inguruan hitz egiteko, bilera antolatu du, herritarrek zein bailarako biztanleei bertara gonbidatuz. Bilera hilaren 22an, 19:00etan, ikastolako areto nagusian izango da.

Autoaren zozketarako txartelak saldu ahal izateko, inguruko eta ez hain inguruko herritarra irteerak egin behar direnez, txandak osatzeko jendea falta zaie. Eskertuko dute bilera azaltzea eta, ahal duenak, izena ematea. Bilera azaltzerik ez duenak eta parte hartzeko prest dagoenak, Anoetako edo Irurako ikastolan eman dezake izena, edota Irurako ikastolako 943 69 43 74 zenbaira deituz. Orain arte bezala, herritarren eta bailarakoen laguntza izango duten itxaropen osoa dutela azaldu dute.

## Laburrak

**Kaldereroen Egunerako entsegu hilaren 22an**

**ANOETA-IRURA** • Anoetak eta Irurak elkarrekin ospatzen dute Kaldereroen Eguna. Aurten Anoetatik Irura egingo dute ibilbidea, hilaren 25ean, 18:00etan, Anoetako plaza abiatuta. Entsegu orokorra hilaren 22an egingo dute, 18:30ean, Anoetako Ikastolan.

**Izen-abizenak euskal grafiara aldatzeko aukera**

**ZIZURKIL** • Udalak gogorarazten du izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi duenak, horretarako aukera duela udal bulegoetan. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Euskara Zerbitzuko 943 69 24 95 telefono zenbakira deitu dezake.

## Gutunak

**Oria Merkatarien Elkarteari eskerririk asko**

Nire eskerririk beroenak Oria Merkatarien Elkarteari Gabonetan egindako zozketan jaso nuen oparoen ezinhobeagatik. **Lurdes Maya.** Tolosa.

# 'Batuta' antzezlan, gaur Gurea aretoan

**Villabona** » Taun Taun antzerki taldeak emango du txotxongiloekin egindako obra, 17:00etatik aurrera.



Batuta antzezlanaren une bat. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Taun Taun antzerki taldeak *Batuta* obra emango du gaur Gurea aretoan, 17:00etan. Haurrei zuzendutako txotxongiloen antzezlan da eta 4 euro balioko ditu sarrerak.

Geltoki batean gertatzen da istorioa. Trena pasatzen da, jendea ere

bai bere maletekin, baina halako batean maleta bat geltokian gelditzen da, bakarrik. Maleta zabaltzerakoan Batuta agertu da.

**Musika ardatz**

Batutak bere batutarekin musika bide bat eskainiko du, klasikoetan klasikoetatik gaur egungo klasikoetara, bere musika-notak, bere jolasak eta bere lagun Notatxo lagun dituela.

Itsaso Azkarate eta Karlos Odriozola dira zuzendariak eta bi horiez gain aktore lanetan Iñaki Mata aritzen da.



13°  
8°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 15°  
HOTZENA 9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 032. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Lizartza.** Lizartzako Inauterien hasiera: 12:00etan gibel dastaketa, udal ordezkariek eta txekorra plazan direla; ondoren antzerkia eta Otsolar dantza taldearen saioa.

### Deialdiak

■ **Alkiza.** Hilaren 26an Kaldereroen Eguna ospatuko dute herrian. Entseguak asteazkenean 20:30ean eta larunbatean 16:30ean izango dira Kultur Etxean.

■ **Altzo.** Candanchura eskiatzera joateko autobusa antolatu dute, 3 euroren truke. Izena udaletxean eman behar da (943 65 24 13). Otsailaren 10ean joango dira 06:30ean ateraz. Izena emateko azken eguna, otsailaren 1a (ostirala).

■ **Altzo.** Altzoko Udaletxean ENHA tramitatzeko aukera dago, 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria behar dira horretarako.

■ **Tolosa.** AHTren ibilbidea ikusteko eta zer kalte eragingo dituen erakusteko mendi marxia antolatu dute Oargi, Alpino eta Haitzetan Raju elkarteek. Mendi marxia eta gero Oargin bazkaria antolatu dute.

### Musika

■ **Tolosa.** Uek eta Kea musika taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Encantada. La historia de Giselle* haurrentzako filma emango dute asteburuan Leidor aretoan, larunbatean eta igandean 17:00etan.

■ **Tolosa.** *Deseo, peligro* film txinatarra emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

### Erakusketa

■ **Tolosa.** Miriam Orkoiaren margolariaren lanak ikus daitezke Sorron koadro dendan (Korreo kalea).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kale, 10. 943 676013.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Karrozetarako izen-ematea zabalik

**TOLOSA** ■ Bi aste baino ez dira geratzen 2008ko Inauterietarako. Bada, Tolosako Udaleko festa batzordetik jakitera eman dutenez, karroza eta konpartsa lehiaketan parte hartu nahi dutenentzat izen-ematea

zabalik dago jadanik. Beraz, parte hartu nahi dutenek Aranburu Jauregiko sarreran eman dezakete izena. Orduetgia asteartetik larunbatera izango da, 17:30etik 20:30era. A. IMAZ

## A Agurrak



### Zorionak!

**Dionisio eta Kontxi (Amezketeta).** Gaur 45 urte Txindokipeko txoko hontan uzartu zinetela betirako. Bion artean sortutako soro handia osatzen dugun guztion partetik.

hitza ren eskutik

**G P U N T U A**  
IPUZKOAKO BERTSOLARI  
TXAPELKETA 2007

**Finaleko DVDa**

Finaleko bertsoaldi hautatuak



Hitza ren harpidedunentzako eskaintza berezia **6 €**

Deitu: **902-82 02 01**

